

IKASGAIAREN IZENA: IKERKUNTZA ZIENTIFIKO TAILERRA

DEPARTAMENTUA	MINTEGIA: FISIKA-KIMIKA
ZERTARAKO	Zientziarako sormena garatzeko
ZER IKASIKO DUZU	<ul style="list-style-type: none"> - Aldez aurretik planteatutako arazo problematiko baten aurrean irudimena eta sormena indartzea: arazoa mugatuz, hipotesiak eta estrategiak planteatuz eta esperimenduak diseinatuz. - Aztergai diren sistemak behatu, neurtu eta erabiltzeko tresnak eta aparatuak kontuz eta zehaztasunez erabiltzea, eta segurtasun eta ingurugiroari buruzko arauak errespetatzea. - Datu esperimentalak arreta handiz biltzeak eta ondoren aztertzeak ondorioak atera ahal izateko duen garrantziaz jabetzea. - Norberak eta besteek ulertzeko hizkuntzak duen garrantziaz jabetzea, eta batez ere zientziei lotutako alderdiak azpimarratzea. - Ikaskideekin elkarlanean aritzea, haien iritziak ikuspegi kritiko batez onartzea eta lanetan aktiboki parte hartzea. - Bereganatzen dituzten ezagutzak ingurugiroaren zaintzan oinarritutako jarrera kritikoa hartzeko erabiltzea. - Zientziak giza jardura gisa eta errealitatea interpretatzeko tresna gisa duen garrantzia baloratzea eta mota guztietako faktorek zientzian duten eragina kontuan izatea. - Talde-lanak eta komunikazioak lan zientifikoan duen garrantzia ezagutzea eta ikerketetan jarraitutako prozesu osoa txosten idatzietan era egoki batez aurkeztea.
METODOLOGIA	<p>Lan zientifikoaren izaera soziala kontuan harturik, ikasgelan egin beharreko lana oinarritzko elementu hauen inguruan antolatzen da: egoera problematikoen planteamendua, lan-taldeen bitartez funtzionamendua eta lan-taldeen artean elkarrekintzak mantentzea. Ikasgela bi edo hiru laguneko talde txikietan antolatzen da, irakaslearen gidaritzapean jarduerak ikerketa-ekipoen moduan lantzen dituzten taldeetan.</p> <p>Laborategiko lana egiterakoan ikasleak kontuan hartu behar duena:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Esperimentu bat egin baino lehen, zer, zergatik eta nola egin behar den jakin beharko du. Beraz., esperimenduaren gida irakurri beharko du; behar diren material guztiak dituela egiaztatu beharko du., esperimendua egiteko irakasleak emandako informazio osoa kontutan hartu beharko du. 2. Esperimendua egiten duen bitartean: adi egon behar du., segurtasun arauak kontuan hartu behar du., datuak jaso beharko ditu eta koadernoan apuntatu beharko ditu; 3. Esperimendua egin ondoren: talde guztietan lortutako emaitzen eztatidan parte hartu beharko du, konparaketak egiteko eta ondorioak ateratzeko; egindako lan guztiak koadernoan era egokian aurkeztuko dira eta irakasleari entregatu beharko dio berak eskatzerakoan.
EBALUAZIOA	Koaderno (edukiak, txukuntasuna, ...) jarrera (lana, interesa...) eta azterketa bat izango dira ebaluazio adierazleak. Koaderno eta jarrerak pisu handiago dute azterketak baino.
OHARRAK	